

# **BONAPARTE, EUROPAKO DIALEKTOLOGIA ETA EUSKALKIAK**

Jose Antonio ARANA MARTIJA  
Euskaltzaindia

## **SUMMARY**

After mentioning linguists previous to L.L. Bonaparte, we point out the importance of European languages (including the Basque language) in the research done by the Prince. we explain the different classifications of the spoken languages of Europe, families of languages, dialects and so on, as well as mentioning the relationship he had with other contemporary linguists. We also speak about the work done on the Basque language, the different classifications of dialects and his collaborators.

## **RESUME**

Après avoir mentionné les linguistes qui précédèrent Bonaparte, on souligne l'importance des langues d'Europe, et du basque en particulier, dans les travaux du prince. On expose ensuite les diverses classifications (en familles, dialectes, etc...) des langues parlées européennes et commente les rapports que le prince a entretenus avec les linguistes de son temps. On cite également différents travaux portant sur le basque, les classifications de dialectes et les collaborateurs du prince dans ses recherches.

## 1. Sarrera gisa

Aspaldidanik geunden egun zorionsu honi begira. Aurretik mintzatu diren euskaltzainburu eta agintariek egoitza berri honen inaugurazioari ekin diote eta ondo deritzot egun ospagarria baita gaurkoa Euskaltzaindiarentzat eta Euskal Herriarentzat. Baina data delata esan beharra da, ondo aukeratua zegoela aurtengoa, bi mendeurren ospatzen baititugu 1991. urte honetan. Bata, Louis Lucien Bonaparte printzearen heriotzaren mendeurrena, bera izan baitzen, ikusiko dugunez, euskara eta euskalkiak ikertzerakoan aitzindaria, eta ospakizun honetan gunea izateko merezimenduz betea eta gaur hasten dugun Nazioarteko Dialektologia Biltzarraren zioa. Baina ez dezagun ahaztu beste efemeride bat, beste mendeurren bat. Aurten, eta urrian hain zuzen, ehun urte betetzen dira Resurreccion Maria Azkue, lehen euskaltzainburuak, bere *Euskal izkindea* argitara eman zuenetik. Hementxe berton, Bizkaiko Diputazioak zeukan egoitzan, 1889.eko ekainaren 4ean, onartu zuen orduko Diputazioak Azkueren Gramatika hori argitaratzea, eta 1891-1892 ikasturterako testu gisa jarria izan zen, duela ehun urte kaleraturiko Azkueren Gramatika hura. Euskaraz idatzitako lehen gramatika zen Azkuerena eta gogoan izatekoa da benetan argitarapen honen mendeurrena. Bi dira, bada, gaur ospatzen ditugun erraldoiak, Bonaparte, lehen mailako euskalaria eta Azkue, euskaldunik handiena.

## 2. Gaiaren zailtasuna

Beldurrez agertzen naiz hemen zaudeten guztion aurrean aukeratutako gaia azaltzeko une honetan. Hizkuntzalari jakintsuen artean nere jakituri apala aitortu behar dut hasiera-hasieratik. Esango dizuet, dena den, nahiko ez bada ere, maitasunez eta iraupenez ikertu eta garatu dudala lana. Baina neretzat, subjektiboki, gaia zaila eta astuna bada ere, objektiboki hizkuntzalaritza konparatua zientzia gardenen ez dela aitortu beharra dago. Animalien eta landaren milaka moetak jadanik sailkaturik dauden une honetan, harrigarria iruditzen zaigu gure planetan dauden hizkuntzen altxorra sailkatu ezina. Zenbat hizkuntz desberdin dauden ere ez dakigu, batzuentzat 3.000 inguru direnak beste batzuentzat 5.000 arte heltzen baitira. Hizkuntzak, nolabait esateko, ezkondu egiten dira eta beste hizkuntza berri bat edo semeak sortzen dira, familia bat sortaraziz. Eta zaila izaten da bata besteengandik bereiztea.

Bestalde, hizkuntzak bereizteko beraien izenak ere bereiztu beharrean aurkitzen gara, eta hemen sortzen zaigu terminologia ezberdinaren zailtasuna. Hizkuntzen izenak ez daude normalizatuta, eta egon arren, ezberdinak dira kanpotik begiratuta beste hizkuntzek ematen dieten izena. *Euskara*, orain normalizaturik, gureari ematen diogun izena da; baina *euskera* eta *eskuara* ere hor daude bizirik, eta kanpoko hizkuntzentzat *vasconice*, *vascuence*, *vasco*,

*basque, baskish* eta abar erabiltzen dira. Alemanentzat *deutsch* dena, *german* da anglosajoiarentzat, *alemán* espainolentzat, *tedesco* italiarrentzat eta *niemietski* errusoentzat. Tokian tokiko izenak maiz desberdinak dira kanpoko hizkuntzalarientzat: hizkuntza uralikoetan, esate baterako, herrikoek *mansi* deitua *vogula* da, *xanti* kanpokoentzat *ostiakoa*, *komi* gehientzat *sirjaene* edo *zirianoa*, *suomio* mendebaldeko europarrentzat *finnois*, *finish* edo *finesa*. Hizkuntza erromaniko, eslabo eta zeltikoetan gauza berbera gertatzen da.

Gaur egun hainbeste izen erabiltzeak ematen digun zailtasuna historikoki begiratuta gehiago ugaltzen da. Hervás Pandurok XVIII. mendean izendatzen zituen *teutoniko*, *eszitiko* eta *epirotiko* familiak, zeintzuk dira eta zein izen daramate gaur egun? Bonapartek berak sortzen digu zalantza eta zailtasun berdina: 1847 eta 1857an latinez egin zuen Europako hizkuntzen sailkapena; gero 1863an frantsesez eman zigun sailkapen eta zerrenda berria; 1873 eta 1881ean ingelesez eman zizkigun hizkuntzen zerrendak. Beraz, lehendabizi *cambrice*, *armorice*, *hibernice* deituak, gero *gallois*, *breton* eta *gaélique* izendatu zituen, eta azkenean, *welsh*, *breton* eta *irish* ingelesezko terminologian.

Hizkuntzen familietara jotzen badugu gaia ilunagoa gertatuko zaigu. Hizkuntza uralo-altaikoek familia bat osotzen dutela uste dutenen aurka, bi familia desberdinak direla argi omen dago orain. Baina familiaren adar bat enbortzat hartzen dutenak ere badaude, eta hor dugu Bonaparte bera: *Langue basque et langues finnoises*, 1862 urteko lanean, finesa hartzen du amatzat eta adar gisa beste uralikoak. Oraingo hizkuntzalaritzan finesa uralikoen adarra da. Euskara bera zeltikoen familiakoa zela onartzen zen XVIII. menderarte. Baina hizkuntz nagusietatik aparte, bakoitzaren dialektoak sailkatzerakoan, hainbat irizpideren arabera (morfologia, aditza, e.a.) ezadostasunak sortzen dira, eta honetaz hainbat eztabaida izan dira azken 150 urteotan.

Beraz, gure gaia Europara mugaturik, hizkuntz mapa bat egiteko dauden zailtasunak nabarmenak dira. Halako lan bat Bonaparteren garaian burutzea zailagoa zela begi bistan dago. Hizkuntzalaritza zientzia berria izateaz gain, XIX. mendearen erdian estatuen batasunerako iraultzak hasi ziren eta nahasturik zeuden nazioen eta hizkuntzen kontzeptuak.

### 3. Hizkuntzalaritzan aitzindariak

Bonaparte eta Europako hizkuntzak aztertu behar ditudanez, ezin ditut hemen azaldu gure apologisten lanak, ez zutelako Bonaparterengan eraginik izan. Egia esan, Poza, Etxabe, Larramendi, Perotxegi, Astarloa, Erro, Aizkibel eta beste halakoen lanak ezagutzen zituen printzeak, berauen liburuak liburutegian zeuzkan eta. Europako hizkuntzak ikertu eta sailkatu zituzten aitzindariak ditut oraingoan ikergai. Juan Bautista Errok 1815ean argitaratu zuen *El Mundo Primitivo* liburuaren antzerako izenburua eman zion berrogei urte

lehenago bereari Antoine Court de Gebelin frantsesak (1725-1784): *Monde primitif analysé et comparé avec le monde moderne, considéré dans l'histoire naturelle de la parole ou Grammaire Universelle et comparative* (Paris, 1774). Lehen argitarapen honen alerik ez zegoen Bonaparteren liburutegian, baina bai Parisen 1816an kaleratutakoaren bigarrena. Euskara familia zeltikoren adarra zela baieztien zuen Court de Gebelin-ek, eta oker honek irauten du oraindik Pariseko Bibliothèque Nationale delakoan, euskal fondoak zeltikoen artean kokaturik baitaude. Oker hau zuzendu zuen lehena Lorenzo Hervás Panduro (1735-1809) izan zen. Hizkuntzalaritzarekin zerikusirik gabeko zientziak ikasi zituen, baina 1767an Italiara erbesteratua izan ondoren, munduko hizkuntzen ikerketari ekin zion. Erroman bizi zelarik, mundu orotik zetozen bost mila misiolari edo inkestatu zituen eta 1784an *Catalogo delle lingue conosciute e notizia della loro affinità e diversità* argitarara eman zuen Cesenan. Munduko hizkuntzen katalogo hau gaztelaniaz argitaratu zen Madriden (1800-1805) eta bi argitarapenak zeuzkan Bonapartek liburutegian. Europako hizkuntzak bederatzi familiatan banatzen ditu Hervás Pandurok, hots, 1. Eszitikoak (uralikoak), 2. Eslaboak, 3. Teutonikoak (Germanikoak), 4. Zeltikoak, 5. Tartaroak, 6. Epirotikoak (Albanoa), 7. Zinganoa, 8. Grekoa, eta 9. Euskara. Lehena eta azkena eransleak dira eta beste guztiak (arioak edo indoeuropearrak) flexiboak. Funtsean geroago erabiliko den sailkapena ematen digu Hervásék. Hiru urte barru, 1787an, beste bi liburu argitaratu zituen: *Vocabolario poliglotta con prolegomeni sopra più CL lingue* eta *Saggio pratico delle lingue con prolegomeni e una raccolta di orazioni dominicali in piu di trecento lingue et dialetti*. Hau izan zen, hain zuzen, hogeitau urte geroago Juan Cristobal Adelung (1732-1806) eta honen loba zen Federico Adelung hizkuntzalariek jarraitu zuten lana *Mithridates* izeneko liburuan (Berlin, 1806) "Gure Aita" bostehun hizkuntzetara itzuliz. Alemania zen orduan hizkuntzalaritzaren gunea eta bertatik etorri zitzaigun, bi bidaietan, gero Bonapartek egingo zuen bezala, Karl Wilhelm Humboldt, zeinek XIX. mendearen hasieran euskarari ikerketa baliotsuak zuzendu zizkion, iberismoaren aldekoa agertu zelarik, euskara hizkuntza ario edo preindoeuropearrak baino zaharragoa zela esanez. Aitzindarien aipamen labur honetan Fleury Lécuse (1774-1845) sartu beharko genuke, Toulouseko unibertsitatean zegoelarik, euskal idazle eta gramatikalariekin harremanak izan zituen.

#### 4. Bonaparte eta Europako hizkuntzak

Bonapartek berak dioskunez, 1843 eta 1869 urteren bitartean hainbat bidaiak linguistiko burutu zituen Frantzia, Suitza, Espainia eta Italiatik, orduko idazle, itzultzaile eta hizkuntzalariekin harremanak izanik. Lehen bost urteetakoak, hots, 1848 arte, Italiatik egin zituen, urte horretan Frantziako II. Errepublikak sortu ondoren, Louis Napoléon Bonaparte lehengusua presidentea izendatua izan zenean, Parisera joan baitzen Korsikatik kargu politiko batera-

ko hautatua. Baina berehala hasi ziren iraultzak Frantzian, Alemanian, Austrian, Italian eta Hungarian, eta hizkuntzalaritzan murgildurik zegoenez, ikerketek eskatzen zioten bakea lortzeko, Londredera joan beharra ikusi zuen, behin betirako bertan bere egoitza finkatuz, 1852an lehengusua enperadore hautatua izan zenean Napoleon III.a izenarekin. Ingalaterran nahiko baketsua zen giroa Victoria erreginarengatik (1837-1901) eta Frantzian ere, nahiz eta kanpoan gerrateak izan, toki batetik bestera mugitzeko parada zeukan. Parada hori Frantzia eta Prusia 1870ean gerran hasi zirenean bukatu zitzaion printze-ari, eta argitarapenak egiteko dirulaguntza ere. Beraz, 27 urteko epea izan zuen hizkuntza zeltikoak, erromanikoak eta hauen dialektoak aztertzeko. Tarte horretan egin zituen bost osterako linguistikoak Euskal Herrira, 1856, 1857, 1866, 1867 eta 1869an. Bi hil terdiko bidaia egin zuen Italiara 1854.eko udaberrian eta Londresetik Parisera ere egin zituen osterak, gutienez 1853an eta 1861ean. Beraz, Europako mendebaldean tokian tokiko azterketak egiteko ez zuen oztoporik izan, eta esparru honetako dialektoak ikertzeko beta hobe egin izan zuen aurkitu. Beste Europako hizkuntzak ikertzeko, hots, germanikoa, eslaboak eta uralikoa, liburuetara eta gutun harremanetara jo behar izan zuen.

Esan dezagun Bonapartek Europako hizkuntzak soil-soilik aztertu zituela. Beste hizkuntzalari batzuk, Charencey, Burnell, Hunfalvy, Sayce, Hovelacque, Vinson, Schuchardt eta abar, Asia eta Afrikako hizkuntzekin ere arduratu ziren. Europako hizkuntzetan bere lana mugatuz, 1847an eman zigun Bonapartek lehen sailkapen lexikografikoa, *Specimen lexicum comparativum omnium linguarum europaearum*, oraindik Italian bizi zelarik Florentzian argitaratua. Berrogeita hamabi hizkuntza zerrendatzen ditu, sei familia nagusitan bilduak. Euskara da lehen jartzen duena, isolatua. Hala ikusten ditu Bonapartek Europako hizkuntzak 1847an:

- I. 1. Vasconice.
- II. 12. (Finnice): Finnice, Estonice, Lapponice, Sueco-Lapponice, Syrjaene, Permice, Votjachice, Ceremissice, Morduanice, Hungarice, Vogulice, Ostiachice.
- III. 3. (Celtice): Hibernice, Cambrice, Armorice.
- IV. 12. (Graeco-Latine): Epirotice, Graece, Neo-Graece, Latine, Italice, Hispanice, Lusitanice, Gallice, Provincialiter, Catalunice, Raethice, Valachice.
- V. 13. (Germanice): Gothice, Teutonice, Germanice, Saxonice, Neo-Saxonice, Hollandice, Anglo-Saxonice, Anglice, Frisice, Neo-Frisice, Islandice, Suecice, Danice.
- VI. 11. (Slavice): Slavonice, Russice, Illyrice, Slovenice, Bulgarice, Polonice, Bohemice, Sorabice, Borussice, Lithuanice, Lettice.

*Specimen...* delako Euskaltzaindiak daukan alean, Bonapartek berak egin zituen eskuskribuz gehiketa batzuk: Samojedice, Cornubice, Polabice, Ossetice, Abasice eta beste. Bestalde, hizkuntza zeltiko eta uralikoen xehetasunak lortzen hasi zen bai gramatikalari eta itzultzaileengandik. Italian, Frantzia eta Suitzan eginiko bidaietan dialektoak bereizteko aukera zuzena izan zuen eta, hala, hurrengo sailkapena egiten duenerako baditu hogeitazko hizkuntza eta dialekto gehiago. *Parabola de Seminatore LXXII linguis versa* argitaratu zuen 1857an. Hamar urte lehenago eman zizkigun sei familiak mantentzen ditu parabolaren itzulpenak orain argitaratzen dituenen. Baina, esate baterako, lehen 1847an *Vasconice* bakarra ematen bazuen, orain sei euskalki sartzen ditu zerrendan eta itzulpenetan: *Guipuzcoana, Biscaina, Superioris Navarrae, Lapurdensi, Inferioris Navarrae* eta *Solensi*. Beste hizkuntza batzuen dialektoak ere gehitzen ditu. Hasi da, beraz, Europako dialektologia aztertzen.

Hirugarren sailkapen bat ematen digu 1863an, *Classification morphologique des langues européennes, adoptée par le prince Louis Lucien Bonaparte pour son vocabulaire comparatif* delako erroldan. Berrogeita bi hizkuntza ematen dizkigu berriz, dialektoak aipatu gabe, eta hilda daudenak azpimarratzen ditu: Cornouaillais, Grec, Latin, Gothique, Allemand ancien, Bas-allemand ancien, Anglo-saxon, Frison, Slavon, Polabe eta Prussien. Sei familia mantentzen ditu hemen ere baina familien barruan aldaketa nabarmenak egiten ditu. Euskarak isolaturik jarraitzen du. Lehen *finis* izena zeraman familia orain *uralikoa* da, baina *altaikoen* artean jartzen du, eta orain dakigunez, *uralikoa* eta *altaikoak* ez dute zerikusik. Ario edo preindoeuropear diren hizkuntzei indo-germaniko izena ematen die, bertan zeltikoak, greko-latinoak, germano-eskandinaboak eta eslabo-letonak sartuz. Beraz, hizkuntza uralikoak eta altaikoak nahasten baditu ere, gaurko hizkuntzalaritzak egiten duen sailkapenera hurbiltzen doa Bonaparte.

Hamar urte geroago ematen digu Bonapartek laugarren sailkapen bat, edo hobeto esateko, 1863.ekoa bera, baina aldaketa batzuekin. Azken urteetan egindako ikerketa eta harremanekin, Europako hizkuntzen bokalak fonetikoki finkatzea lortu zuen printzeak eta Alexander J. Ellis antropologoak argitaratu zion lana: *List of vowels and consonants, and identifications of european vowels, with examples*. Ingelesez idatzitako lana dugu hau eta lehen latinez eta frantsesez erabilitako terminologiak gain, orain berri bat ematen digu hizkuntzen izenentzat, 1873an argitaratutako lan honetan. Euskararentzat, zuberotarra eta honen azpieuskalkia kontutan harturik, hots, erronkariera, 13 bokal bereizten ditu. Beste hizkuntza askotan ez du orokorki hizkuntza osoaren sistema bokalikoa ematen, dialekto batena baizik, esate baterako, *tsheremissian* hizkuntzan Volga ibaiaren eskumaldekoa, *morduinoan* ersa dialektoa, *vogulean* Kondakoa, *ostiakoan* Surgutekoa, *retikoan* Oberlandekoa, eta abar. Bi hil-

dako hizkuntzak kentzen ditu eta bi berri sartu zerrendan: *Scotch* eta *norwegian*. Lehen *lusatian* deitutakoari orain *sorbian* izena ematen dio eta desagertutako *polabikoari*, *kasubian* izena ematen dio orain.

Bostgarren sailkapena da osoena eta interesgarriena, 1881ean argitaratua, non Europan aztertu zituen hizkuntza eta dialekto guztiak zerrendatzen zituen: *List of languages and dialects belonging to the Basque, Uralic and Aryan families of Europe, in which one or more entire books of the Bible have been literally translated and printed*. Nahiz eta lehenagokoetan bezala sei hizkuntzen familiak mantendu sailkapenean, 133 hizkuntza eta dialekto zerrendatzen ditu, zeinetara Biblia osoa edo honen liburu bat edo gehiago itzuliak izan diren. Printzeak berak argitaratutakoak -eta asko dira errolda honetan azpimarratzen ditu. Hemen ere hizkuntza uralikoak altaikoen enborrean sartzen ditu eta euskara iberikoen artean. Euskarari dagokionetik, itzulpenen arabera, eta ez berak egindako sailkapen orokorra kontutan izanik, zortzi euskalki eta azpieuskalki aipatzen ditu. Eta azpimarratu behar den oharra: gipuzkera dela “basque language” dio eta besteak euskalkiak edo azpieuskalkiak. Ez zuen Azkuek hau irakurri edo ez zuen kontutan izan *Gipuzkera osotua* batuztat proposatu zuenean.

## 5. Bonapartek ikertu zituen hizkuntzen dialektoak

Esan dezagun oraingo Hizkuntzalaritzak hamaika hizkuntzen familiak eta hizkuntza isolatuak bereizten dituela Europan: 1. Altaikoak, 2. Uralikoak, 3. Semita, 4. Euskara, 5. Eslaboak, 6. Baltikoak, 7. Germanikoak, 8. Zeltikoak, 9. Grekoa, 10. Albanesa, 11. Erromanikoak. Hauetatik Europan dauden hizkuntza altaikoak eta Maltan dagoen semita bakarra ez zituen Bonapartek ikertu. Besteak, batzuk zabal eta sakonago eta beste batzuk azaletik, hizkuntzalaritzan murgildu zenetik aztertu zituen, hiru moltso eginez:

1. Euskara
2. Uralikoak
3. Ario edo indoeuropearrak
  - 3.1. Grekoa
  - 3.2. Albanesa
  - 3.3. Eslaboak
  - 3.4. Baltikoak
  - 3.5. Germanikoak
  - 3.6. Zeltikoak
  - 3.7. Erromanikoak

Hiru aro ezberdin bereiztu behar dira Bonaparteren ikerlanetan:

1. 1843-1856: datu bilketa eta harremanak
2. 1856-1870: argitarapenak, gehien bat itzulpenak
3. 1862-1890: ikerlanak, eztabaidak.

Utz ditzagun gerorako Bonapartek euskalkietaz egin zituen ikerketak. Uralikoak direla eta, Friis, Hunfalvy, Lönnrot, Castren, Gabelentz eta Ahlquist hizkuntzalarien gramatikak eta lanak izan zituen ikasgai *Langue basque et langues finnoises* argitara eman orduko. Gero Thomson, Wiedemann, Pollmann, Prinz, Karow, Rogow, Sawaitov, Popov eta beste itzultzaileekin izan zituen gutun harremanekin, eta Charencey, Van Eys eta Vinson jaunekin izandako eztabaidak medio zirelarik, aldaketa batzuk sartu zituen zeukan uralikoen ezagutza eta sailkapenean. Beste hizkuntza eslabo, germaniko eta erromanikoekin konparaketak eginez gain, *Remarque sur la classification des langues ouraliques* argitaratu zuen 1876an eta *Italian and uralic possessive suffixes compared* 1884ean.

Indoeuropearren artean, ez zion grekoari ikerketa berezirik zuzendu, baina Korsikan egiten zen dialektoko hiru itzulpen lortu zituen, Bartoli, Nicolopoulo eta Stefanopolik egindako *Seme prodigoaren parabola* hain zuzen, azkenarena argitaratu zuelarik 1860an. Albanesa gehiago aztertu zuen Camarda eta Rossi de Montalto jaunekin izan zuen gutundegian. Albaniako hizkuntza ikertu zuen eta Scutari, Tosk, Calabria eta Siziliako haren dialektoak, hiru San Mateoren Ebanjelio desberdinak argitaratuz 1868, 1869 eta 1870ean. *Albanian in terra d'Otranto* ikerlana argitaratu zuen Bonapartek 1884ean.

Hizkuntza eslaboak ez zituen bereziki aztertu, nahiz eta *Specimen lexici comparativi* liburuan hitz andana eman. Dena den, *The song of Solomon in Russian* argitara eman zuen 1858an, Londreseko Moldiztegi Nazionaletik letra tipoak atera zituelarik argitarapena bere moldiztegian prestatzeko. Hizkuntz baltikoak ere ez zituen aztertu, hots, letonia eta lituanoa.


Hizkuntza germanikoen artean, ingelesa eta honen dialektoak izan ziren gehien ikertu zituenak, baina Viereck jaunak emango digu hauen berri hurrengo hitzaldian. Beste hizkuntza germanikoetaz ez zuen ikerketa berezirik egin, baina eskuskribuetan agertzen dira bildu zituen itzulpenak, hala nola, Schmeller-ek Salomonen Kantua 16 dialektotan itzulia, kantu bera platt-deutscher edo Wersfaliako dialektoan itzulia, eta abar. Neerlandes eta Frisiako hizkuntzak gehiago aztertu zituen, fonetika ikuspuntutik gehien bat, Donders eta Ellis jaunekin izan zituen harremanetan. Halbertsmak eginiko San Mateoren Ebanjelioaren itzulpena argitaratu zuen Bonapartek 1858an.



Hizkuntza zeltikoak eta erromanikoak dira irazkintzeko geratzen zaizkigunak eta Bonaparteren lanetan ugalkor eta garrantzitsuenak. Hizkuntza zeltikoak direla eta, eztabaida luzeak izan zituen Bonapartek Beddoe, Dauwkins, Clarke, Sayce, Van Eys, Rhys eta Hughes hizkuntzalariekin. Euskara-zeltiko konparaketan zegoen kakoa. Bonaparte iberismoaren aldekoa zen eta azkenerrate jarraitzen du iritzi horretan. Zeltismoaren aldekoak ziren batzuen batzuk, eta ez zen argitasun handirik lortu eztabaidetan. Dena den, zeltikoa bi adarretan banantzen zuen Bonapartek: gaelikoa hiru dialektotan banatua, hots irish, scottish eta Manx islakoa; eta bretoia beste hiru dialektotan banatua, hots, bretoia bera, hiru azpidialektoekin (Léon, Tréguier, Vannes), Welsh edo Galesekkoa eta jadanik desagertua zen kornikoa.

Erromanikoak edo latinetik sortutako hizkuntzak dira azkenak. Lehen aipaturiko bost sailkapenetik aparte, eta erromanikoei dagokionetik, beste bat ere eman zigun printzeak 1877an *Remarques sur les dialectes de la Corse* argitaratu zuenean. Gero, 1881ean, Bibliaren itzulpenen arabera aipatu bostgarren sailkapena egin zuenean, 1877an egindakoari xehetasunak eransten dizkio. Sailkapen bereziena, behar bada, Sardinia eta Korsikako dialektoetaz egiten duena da: Korsikako ekialdekoa toskano-romanoa da, beraz, toskanoaren eragina duena. Korsikako mendebaldekoa (Ajaccio, Sartene eta Bonifazio inguruetan mintzatzen dena) Sardinian iparraldeko Tempio eta Sassari inguruetan mintzatzen direnekin loturik dago. Eta hirugarren dialektoa, Sardiniako hegoaldean mintzatzen dena apartekoa da, Sardiniakoa propioa, Italiako dialektoekin zerikusirik ez daukana. Italiako iparraldean mintzatzen diren dialektoak, Veneziakoa izan ezik, ez dira italianoak, gallo-italianoak baizik, beraz Frantziako okzitanoarekin lotura gehiago dutenak, hala nola, piamontera, Vaudois-koa, milanera, bergamera, eromainolera eta boloinera. Piamonteraz Bonapartek duen iritzia urte batetik bestera aldatzen da: Italiaren batasuna lortu arte, Korsikako erresuman zegoen Piamonte txertatua, eta 1877an italianotzat jotzen du hango mintzaira. Gero, 1881ean, argi ikusten du gallo-italikoa dela. Beraz, hizkuntza erromanikoei dagokionetik, hau da Bonaparteren sailkapena:

LATINO-  
ERROMANIKOAK



Ezin dut hitzaldi hau larregi luzatu, entzuleon mesedetan, eta behar bada lan monografiko bat prestatu beharko dut Bonapartek ikertu zituen hizkuntza eta dialekto erromanikoei buruz. Baina beharrezkoa iruditzen zait zera esatea: lexikoa, gramatika eta fonetika arazoetan hainbat eztabaida izan zituela printzeak Abel Hovelacque, Achille Luchaire, Antonio Mattei, Julien Vinson, Willem van Eys, Paul Broca, Comte de Charencey, Martin Guilbeau, Hugo Schuchardt eta abarrekin. Hizkuntza erromanikoetan egin zituen argitarapenak ere aipatzea, luzeago mintzatzeko aukera izango banu, interesgarria iruditzen zait; baina gai hauetaz xehetasun gehiago nahi duenak *Bibliografia Bonapartiana* delakora jo beharko du.

## 6. Euskalkiak bereziki. Laguntzaileak

Europako hizkuntzen artean euskara izan zen Louis-Lucien Bonapartek gehien ikertu zuena eta maitatu eta ondo ikasi ere bai. Beronen ikerlan eta argitarapenetan lehentasuna daukan hizkuntza da euskara, hori denen jakinean dagoelarik. Irizpide zientifikoak aztertuz (aditza, morfologia, fonetika, eta abar) bera izan zen euskalkiak lehendabizi bereiztu eta sistema baten barruan finkatu zituena. *Le verbe basque en tableaux* liburu mardulean euskalkietan aditzak dituen desberditasun eta bereiztasunak argi eta garbi eman zizkigun Bonapartek, gure Euskal Herria zehatz-mehatz ikustatu ondoren. Aditzari beste hizkuntzarekiko irizpide batzuk gehitu ondoren, *Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés* eman zigun. Argibide gisa esan dezagun mapa honek 1863.eko data daramala eta aditzaren estudioak 1869.ekoa, baina ondo dakigunez, mapa beranduago agertu zen.

Ezin ditut hemen Bonapartek egin zituen euskalkien sailkapen desberdinak azaldu, asko izan baitziren urteetan zehar egin zituenak. Baina euskalkien ikerketak bukatu ondoren, mapan eman zizkigun zortzi euskalkiak, 25 azpieuskalkietan banatuak, hauek izan ziren:

1. Bizkaiera
2. Gipuzkera
3. Lapurtera
4. Iparraldeko goi-nafarrera
5. Hegoaldeko goi-nafarrera
6. Zuberera
7. Ekialdeko behe-nafarrera
8. Mendebaldeko behe-nafarrera

Guzti hau, luze, sakon eta xehetasun guztiekin azaltzen digu Pedro Yrizar jaunak honako lan honetan: “Los dialectos y variedades del vascuence”, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* liburua 97-125. orrialdeetan.


Lehen eta bigarren mailako laguntzaileak izan zituen printzeak euskal dialektologiari buruzko lanak idazteko eta argitaratzeko: lehen mailan jarriko nituzke Casenave, Jean-Pierre Duvoisin, Martin Elizondo, Bruno Echenique, Prudencio Hualde Mayo, Emmanuel Inchauspe, Mariano Mendigacha, Pedro Jose Minondo, Klaudio Otaegi, Salaberri, Pedro Jose Samper, Juan Eloy Udabe eta Jose Antonio Uriarte. Itzulpen txikiak, gehienak argitara gabeak, egin zizkiotenak hauek izan ziren: Antonio Arandia, Jean-Baptiste Archu, Nikolas Ardanza, Jose Antonio Azpiazu, Agustin Burgoa, Arturo Campion, Mariano Erviti, Andres Echeberria, Damaso Echeberria, Pedro Fornaria, Benito Gil, Pedro Luis Herran, Pablo Ilarregi, Jose Jabier Larrainzar, Jose Larrea, Bizente Lazco, Jabier Loperena, Juan Marcos, Esteban Obanos, Martin Olabe, Jose Maria Otamendi, Franzisko Ramondeggi, Franzisko Antonio Sagarminaga eta Juan Jose Salazar.

## 7. Azken hitzak

Amaitu orduko, eta labur-labur esan nahi dizuet Bonaparterek bildu zituen eskuskribu guztiak, emango zaizkizuen bi katalogoetan aurkituko dituzuela. Lehenean, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioen artxiboetan eta Euskaltzaindiarenean dauden eskuskribuak aurkituko dituzue eta denak mikrofilmaturik daudenez, edozein aipatu erakundetatik lor ditzakezue. Bigarrenean Bonaparteren bibliografia ematen delarik, beste berri askoren artean Europako hizkuntzetan eta zenbait dialektotan egin zituen argitarapenak azaltzen dira.

Bestalde, jakingo duzuenez, Bonaparteren liburutegia, 18.000 liburuekin osotua, Chicagoko Newberry Library delakoan dago. Liburutegi hori salgai zenean, Victor Collins jaunak burutu zuen *Attempt at a Catalogue of the Library of the late Prince Louis-Lucien Bonaparte* (1894) eta hor zerrendatzen direnetatik gehienak Chicagon daude.

Ez da behar bada nahiko orain arte Bonaparteren omenez burutu duguna. Aurrera begira eta beronen lana bere neurrian aztertzeko, aldizkarietan argitaratu ziren lanak, bai bereak eta bere lanei zuzendutakoak, orain arte aurki ezinezko argitarapenak eta korrespondentzia aurkitu eta bildu beharko genuke Bonaparteri buruzko ikerketa serio bat egiteko. Hala biz.



Europako hizkuntzen sailkapena L.L. Bonaparteren arabera / Clasificación de los idiomas europeos según L.L. Bonaparte